



## 1. Zergatik interesatzen zait birgaitzea?

Zure etxebizitza edo eraikina birgaitzeak onura ugari eskaintzen dizkizu:

- Handitu egiten da etxebizitzaren balioa.
- Hobetu egiten dira etxebizitzaren energia-efizientzia, osasungarritasuna eta erosotasuna.
- Murriztu egiten dira elektrizitate- eta berokuntza-kontsumo eta -gastuak.
- Konpondu eta prebenitu egiten dira hezetasunak eta bestelako kalteak.
- Hobetu egiten da irisgarritasuna.
- Aukera ematen du etxebizitza zure bizimodura egokitzeko.

## 2. Zein obra egin ditzaket udan berorik ez izateko edo neguan hotzak ez egoteko?

Obra hauek egin ditzakezu, besteak beste:

- Leiho onak instalatzea, gutxienez beira bikoitza eta eguzki-kontrola dutenak.
- Eraikinaren fatxadak eta teilatua isolatzea.
- Berokuntza-sistemaren efizientzia hobetzea, tenperatura-erregulatzailak jartzea...

Egia esan, aukera asko daude, baina etxebizitza edo eraikin bakoitza desberdina da, eta ezin da formula orokorrik eman. Horregatik, arkitekto baten diagnostikoa behar da, zorroztasunez aholkatuko baitzaitu.

## 3. Nola jakin dezaket nire etxebizitzak birgaikuntza baten beharra duen?

Etxean ondo ez bazaude hotz edo bero gehiegi pasatzen duzulako, berogailua jartzegatikasko ordaintzen baduzu, elektrizitatearen kostua ikaragarri igo bazaizu, hormetan hezetasunak edo lizun-orbanak badaude... etxebizitza birgaitzeko garaia da!

## 4. Baimenik behar al dut nire etxebizitza birgaitzeko?

Bai. Egingo duzun obrak zer-nolako baimen edo lizentzia behar duen ikusi beharko duzu beti. Adi ibili, jabeari -hau da, zuri- baitagokio baimen edo lizentzia behar bezala eskatzea. Arkitekto batekin aritzen bazara, berak emango dizu guztiaren berri.

## 5. Zer onura ditu etxebizitza birgaitzean arkitekto batekin aritzeak?

Arkitektoa eraikinen eraikuntza edo birgaikuntza diseinatzeko eta koordinatzeko gaituta dagoen profesionala da. Oso baliagarria da etxebizitza baten birgaikuntza kudeatzeko arkitekto bat kontratatzea, prozesu osoan zehar lagunduko dizulako, zure beharrei erantzun egokia emateko entzunez eta zure interesak zainduz: zure ekonomia, zure segurtasuna, zure ongizatea... Gainera, obra behar bezala gauzatzear arduratuko da.

Gogoan izan... arkitektoak proiektu osoan zehar gainbegiratzea eta aholkularitza ematea eskainiko dizu, eta honetan lagunduko dizu:

- Behar den dokumentazio guztia prestatzen.
- Laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzen.
- Obraren prozesu guztia kontrolatzen, hasieratik amaierara.
- Eskaintzak alderatzen eta konponbide teknikorik onenak aukeratzen.

Arkitektoak ziurtatuko du obrak kontratuan adostutako moduan egiten direla, eta saihestu egingo du kostuak areagotu ditzaketan beharrik gabeko edo okerreko eragiketak egitea.

## 6. Garestia al da arkitekto batekin aritzea?

Ez. Zure etxea edo eraikina birgaitzeko arkitekto bat kontratatzea bermea da emaitzarik onenak ezustekorik gabe eta obrak bikoiztu gabe lortzeko. Gainera, profesional kualifikatuena da zure etxebizitzaren edo eraikinaren beharren diagnostiko zehatza egiteko, eta, horien arabera, esku-hartze programa egokia eskaintzeko. Horrek baliabideak optimizatzeko eta birgaikuntzaren onurak aprobetxatzeko aukera emango dizu.

## 7. Nola aurki dezaket konfiantzazko arkitekto bat?

Zoaz zure hiriko Arkitektoen Elkargora, eta galdetu Birgaitze Aholkularitzako Bulegoaz.

[Birgaitze Aholkularitzako Bulegoaz](#)

## 8. Nire komunitatean finka-administratzaile bat daukagu jada. Zergatik izan beharko genuke arkitekto bat horrez gain?

Bi profilek funtzio desberdinak eta osagarriak dituzte.

Arkitektoak bere ikuspegi orokorra, ezagutza eta esperientzia emango dizkizu, araudiari, txosten teknikoari eta eskura dauden laguntzei buruz dituzun zalantzei erantzuteko, prozesu osoa ahalik eta gehien errazteko, eta baliabideak optimizatzeko. Arkitektoa obran bertan egoteak, gainera, egon daitezkeen akatsak garaiz zuzendu ahal izatea bermatuko du, higiezinaren kalteak eta horiek konpontzearen kostuak murriztuz.